

Udarako gomendioak: irakurketa  
gida

### Juan San Martin Liburutegia



ekaina 2019 junio




## 0 + URTE



*Dragoi aita-semeak*  
Alexandre Lacroix—Ronan Badel  
Ibaizabal

*Aitari benetako dragoia dela frogatzeko, Strokurrek auzoko herriko etxe batzuk erre behar ditu. Tradizioak hala agintzen du! Baina Strokur ez dago oso pozik. Nekez botatzen du sua, eta garrantzi gabeko gauzaren bat egiteko soil-soilik, ahoratzeko barraskiloren bat edo beldarren bat erretzeko,*



*Geldi hor, amesgaiztoa!*  
Marie-Agnès Gaudrat—Fred Benaglia  
Tarttalo

*Ai,ai, ai, Olaialaia amesgaizto itsusia izan du. Zorionez, enatu denean, Kuxu topatu du ondoan, bere munstro-lagun txikia. Kuxuk berri ona eman dio: “Ez izan beldug, amesgaiztoak zeuk asmatzen dituzu zeuge buguan...”*



*Adiskideak gara?*  
Anabel Fernández Rey  
Kalandraka—Pamiela


*Zenbaitetan, gustuko ez ditugun edo lana ematen diguten gauzak egin behar ditugu besteei laguntzeko, baina horrelaxe erakusten da benetako adiskidetasuna: eskaintze gisa, lankidetzatik, eskuzabaltasunetik eta egoismorik gabe.*

## 0 + URTE


*El buhito Bu*

Paul Friester– Philippe Goossens  
La Casita Roja

¡Buuuuu, buuuuu, buuuu!, resuena un día en el pacífico bosque. ¿Qué está pasando?, se preguntan los animales. ¿Será un lobo? ¡No!, es un buhito que llora muy, muy fuerte. El erizo, el cuervo, el topo, la ardilla...: todos intentan consolarlo. Pero el buhito no deja de sollozar. ¡Si al menos alguien supiera qué le pasa!...

*Kakari buruz dakidan guztia*  
Jaume Copons—Mercé Galí  
Txalaparta

Gauza hori zuk eta biok egiten dugu, eta gurasoek, amona-aitonek, lagunek...Guztiok egiten dugu, eta horregatik da unibertsala! Gehiago jakin nahi?Zabaldu liburua, eta kontatuko dizut....

*Kornelio*  
Leo Lionni  
Pamiela


*Ipuin honetako krokodilo protagonista da bere komunitateko guztien artean zutik ibiltzen den bakarra. Maila horretatik, gainerakoek ikusi ezin dituzten gauzak ikusten ditu. Besteek, ordea, ez diete garrantzirik ematen.*



**0 + URTE***Nanas para dormir a la luna*Luisa M<sup>a</sup> Martín Alonso—Antonio Suárez Muñoz

Nube Ocho


Veinticuatro nanas en un libro CD ilustrado, compuestas e interpretadas por autores de la talla de Tina Pavón, Blanca Villa, el coro de Fuenteheridos, Luis Naranjo Acosta, Jesús Ciero Polvillo, Fran Muñoz-Reja del Pozo o Ángel Luis Cabezalí.

*Orain ez, Beñat*

Davi McKee

Pamiela

Beñatek gurasoei bera jan nahi duen munstro bat dagoela esan arren, ez diote inolako kasurik egiten. Zentzugabekeriaren mukurua da, munstroak haurren lekua hartzen du etxean, familiako beste inor horretaz ohartu ere egin gabe, Beñatekin egin ohi bezala, hor zegoenik ere ikusi gabe.

*Polita*

Canizales


Denonartean

Sorgin batek hitzordua du ogroarekin, poz-pozik doa zitara; lagunek, ordea, politago agertzea gomendatzen diote eta etengabe aholkuak ematen dizkiote. Zuzen ote dabilta?

## 0 + URTE


*Ura gustuko ez zuen krokodiloa*  
Gemma Merino  
Picarona

*Mundu guztiak daki krokodiloek ura izugarri gustatzen zaiela, baina krokodilo txiki hau desberdina da. Ura ez zaio batere gustatzen. Izan ere, nahiago du zuhaitzetara igo. Eta krokodilo hau benetan krokodilo bat ez bada?*



*Balea*  
Fernández & González  
Kalandraka

Zetazeo itxurako tramankulu mekaniko honetan ehundik gora istorio jostagarri gertatzen dira, eta barrenean oso pertsonaia bitxiak bizi dira. Arretaz begiratu, eta irudimenaz baliatuz zoragarri pasatzeko!



*Moko txiki*  
Leire Bilbao—Maite Mutuberria  
Castalia, 2012


Moko txikidun txori txikia hipopotamoaren bizkarrean bizi da. Hortik aurrera, irakurleak berehala identifikatuko du txikiaren eta handiaren garapena, ilustrazioak ikusi hutsarekin. Tamaina eta koloreen erabilera irizpide zorrotzez erabiltzen du ilustratzaileak marrazkiak irakurriaz bakarrik istorioa ulertu aldera.



**5 + URTE**


*Gurdi handia*  
Txiliku—Eider Eibar  
Elkar

Munduan beste asko bezala, behin batean baziren baserri batean bi idi, eta haietako bat zen zuria, eta bestea gorria. Idietako batek, zuriak egin zuen: "Muu!". Eta besteak, gorriak: "Marruu!". Eta gau batez, etorri ziren bi lapur, eta eraman zituzten bi



*Burua auzoan*  
Séverine Vidal—Pauline Comins  
Ibaizabal

Sukaldeko mahaian eserita edo eskolan dagoela, Albert ametsetan galtzen da. Kontzentratzen da, eta ahalegintzen da oinak lurrean izaten, baina buruak ihes egiten dio. Astelehenean, ikertzaile lanetan dabil; asteartean, herensugearen kontra borrokan; ostegunean, hegan doa apo baten bizkarrean... Zer egin? Ametsik gabeko bizitza ez da batere



*Gaiztoak*  
Clotilde Perrin  
Maeva

Otso bat, haur-jale bat eta sorgin bat. Azkenean gu gara istorioko protagonistak! Zatoz, hurbil zaitez, ez izan beldurrik... Barnera zaitez oihan ilunean eta gure sekretu guztiak erakutsiko dizkizugu. Ausartzen zara? Debekatua printze eta ehiztariantzat.



**5 + URTE**


*Cosimoren katiuskak*  
Dani Martirena—Ana Ibáñez  
Pamiela

*Hiriko parkerik txikienean nago eta Cosimo dut izena. Trebea izan nahi dut zuhaitzetan gora. Trebeena. Adarretik adarrera ibili nahi duzunean, beherantz ez begiratzea da hoberena.*



*Xaguko: sagu ausart baten abentura miresgarria*  
Max Kaplan—Lev Kaplan  
Alberdania

*Gustav itsasargizain zaharrak Xaguko izeneko sagu txikia jaso zuen gau ekaiztsu batean, eta, harrez gero, elkarrekin bizi dira biak. Egun batean, Gustav gaixotu da, eta ezin du itsasargia piztu.*



*Lagun berriak*  
Tomi Ungerer  
Kalandraka—Pamiela

*Beltzen familia bat beste auzo batera aldatu da. Bere urtebetetzean, Rafi txikiak ez du nor gonbidatu oraindik ez duelako lagunik, baina gurasoek opari egindako erremintei esker, erabaki du bere lagun propioak egitea eta irudiak eraikitzea gai birziklagarriak erabiliz.*



**5 + URTE**

*Nada de nada*  
Julien Billaudeau  
Tramuntana

Al principio no había nada. Nada de nada. Bueno, árboles y algunos animales, pero nada importante a los ojos del Señor C. Con su llegada, todo cambia. Empieza a haber cosas: caminos, casas, postes de electricidad, farolas, una torre de agua...



*Ideia bat*  
Hervé Tullet  
Ttartalo

“Baina, zer da ideia bat? Berria da, desberdina, ez du ezeren antzik...” Oraingo honetan Hervé Tullet-ek ideiak nola sortzen diren erakusten digu album polit baten bidez. Sormena eta inspirazioaren nondik norakoak azaldu, eta ohi bezala, gonbidapen jostagarria luzatuko die etxeko txikiei.



*Arkakusoa*  
Juan Kruz Igerabide—Belén Lucas  
Alberdania

“Zer du aitonak buru soilaren erdi-erdian? Hara! Arkakuso bat da, eta ikaragarri handia du burua!”. Zuriñek ez daki, oraindik, oso-oso arkakuso berezia dela: hitz egiten dakien arkakuso bat! Zer kontatuko ote digu?



## 5 + URTE

*Óscar: algunos días de mi  
interesantísima vida*

Catharina Valckx—Nicolas Hubesch  
La Casita Roja

Óscar mira el mundo con curiosidad, fantasía y mucho optimismo. Sabe que la vida puede ser apasionante y que, a modo de ejemplo, vale la pena compartir con nosotros algunos de sus días, incluido uno en que se va la electricidad y que él disfruta como algo muy especial a la luz de las velas...



*Martin eta bere itzala*

Davide Cali—Serge Block  
HarperKids

Goiz batean, joan da Martin sukaldera eta norbait aurkitu du bere mahaian eserita.

—Zu zein zara? —galdetu dio Martinek.

—Ni zure itzala naiz —erantzun du itzalak.

Itzalak Martini segitzen dio: kaletik paseatzera, Coney Islandeko kaian arrantzan egitera, eta Martin doan toki guztietara.


Zein da itzal hori? Pelma latoso bat? Laguna al da? Edo bi



*Zorrito y Jabalí*

Berenika  
Dibbuks

Zorrito vive solo bajo un manzano en unas colinas lejanas. Es un animal pequeño y feliz, ocupado cuidando de sí mismo y de sus cosas de zorro. Sin embargo, un día, un jabalí aparece y se muda bajo el manzano, trayendo con él tiempos de cambio y aventuras. ¿Está Zorrito preparado?



## 8 + URTE




*Barrez lehertzeko moduko istorioa*  
Barbara Cantini  
Mezulari

Mortina neskatoa da, baina ez besteak bezalako: neska zonbia da. Villa Dekadenten bizi da izeko Angustias eta beti berarekin dabilen Betilunekin, bizirik edo hilda dagoen jakitea zaila den txakurrarekin batera. Mortinak bere adineko lagunak izan nahiko lituzke, haiekin jolastu eta ondo pasatzeko, baina izekok ez dio uzten besteen aurrean agertzen; izan ere, jendea ikaratuko luke.



*Gu gara Marimatrakak*  
Ana Jaka—Iosu Mitxelena  
Elkar

Gu gara marimatrakak,  
iji eta aja,  
barre eta zalaparta,  
neska pare aparta.



*Hilketa fiordoetan*  
Sir Steve Stevenson—Stefano Turconi  
Mezulari

Opor garaia da: Mystery lehengus-lehengusinak luxuzko King Arthur transatlantikoan daude, itsas bidaia bat egiten... baina beti izaten da krimenen bat!


## 8 + URTE

*Saharako itsasoa*Lur Gallastegi—Aritz Egiguren  
Elkar


Haizearentzat uda berezia izango da hau: batetik, gurasoak elkarrekin haserre dabiltzala-eta, nor bere aldetik joango dira oporretan, eta bera izeba Eneritzen etxean geratuko da. Bestetik, izeba Eneritzek Saharako lagun batzuen alaba ekarriko du etxera uda-pasa: Souhaila. Ez da erraza izango Souhaila eta Haizearen arteko harremana, hasieran.

*Puka eta Mateoren oilarra*Jokin Mitxelena  
Elkar

Puka artzain-txakurraren lagunak gaurkoan ez daukate plan onik. Marina Mostaza, Nora Ketchup, Kepa Piper, Blas Amuarrain eta Lizar Txanpu erabat aspertuta daude. Ondo pasatzen ari den bakarra Puka da: Kepa Piperrek erreka putzu handira botatzen dion makila harrapatuz jostatzen ari da.

*Torlojuak*Txabi Arnal Gil—Javi Kintana  
Elkar

Omar lagunaren hamsterra akrobazia istripu batean hil zela jakin zuen egunean, atsekabe handia hartu zuen Anek. Horregatik, etxekoei gauza bera ez gertatzeko, zerbait asmatu beharrean zegoela erabaki zuen. Axtuk okigam bat egitea bururatu zitzaion; torlojuak biltzen hasi zen horretarako.




## 8 + URTE



*Harri berdea*  
Patricia Pérez—Julio Santos  
Xarpa Books

Uda hasieran, txango bat egiten ari ginela, halako batean suzko bola erraldoi batek zeharkatu zuen zerua gure begien aurrean, eta basoan erori zen!

Bai, badakit berehala aldendu behar izango genukeela handik, baina ez, gu meteoritoaren bila abiatu ginen.



*Urrezko arrautzagatik lehian*  
Nick Falk—Tony Flowers  
Desclée de Brouwer

Laia, una joven maestra catalana, se traslada a Katmandú para trabajar en una escuela. Allí descubre una pobreza extrema y un panorama educativo desolador que, además, excluye a los más necesitados. Tras contraer, a su pesar, un matrimonio de conveniencia para legalizar su situación, emprende un ambicioso proyecto pedagógico en los barrios de chabolas de la ciudad.



*Emiliren desabenturak*  
Antton Kazabon—Jokin Mitxelena  
Denonartean

Batzuentzat dibertigarria da Emili, besteentzat, gafea. Nahiz eta beldurrak airean ibili zenbaitetan, gehienetan barrez lehertzen amaitzen dute bere lagunak. Emili dibertigarria ala gafea den jakiteko, bere desabenturak irakurtzea, onena.

## 8 + URTE

*Hiru katu kontu*

Ricardo Gómez—Mar Ferrero  
Ibaizabal

Klaudia eta Dani arduratuta daude, Blai, haien katuak, desagertu egin baita. Etxean sartu zutenetik hankaz gora jarri zuen familia osoaren bizitza. Orain, katuarekin bizi izandako momentu zoriontsuak gogoratzen ari dira Klaudia eta Dani, eta beldur dira ez ote zuten bahituko.

*Amona Vladimiraren urrezko hortza*

Ignacio Sanz—Eugenia Ábalos  
Ibaizabal

Vladimira amona bitxia da. Clementino aitonaarekin batera, armiarmen zirkua sortu zuen eta, sidekar motorrarekin, mundu osotik bidaiatu ziren beren ikuskizunarekin. Itzulipurdiak eta malabarismoak egiten ditu; harrituta uzten ditu guztiak. Urrezko hortza du, eta distira berezia izaten du hortzak bilobei bere abenturak eta istorioak kontatzen dizkienean.


*Un tío en París*

Paloma Bordons  
Edebé

Manuel no podía imaginar que su tranquilo viaje a París para reunirse con su tío iba a convertirse en la aventura más extraña de su vida. Si ir a parar por error a un internado de chicas ya era raro, piensa en lo que sería fugarse con once rebeldes y recorrer Francia huyendo de la policía.




## 12 + URTE



*Paristik datorren artista*  
Unai Iturriaga—Alex Sanvi  
Ikastolen Elkarte

lhes egitea zaila bada, are zailagoa itzultzea, ahaztuen zerrendatik irten eta gailurreraino berriro iristea. Horretan dabil HB. Lehengo lagunak bizirik ote? Lo-li-ta izan zuen salbatzaile, baina aldi berean etsai; ezin inorekin fidatu.



*Train kids*  
Dirk Reinhardt  
Milenio

Fernando les advirtió: «De cien personas que cruzan el río, tan solo diez superan Chiapas, tres llegan al norte, a la frontera, y solo una consigue pasar». Cinco jóvenes emprenden el viaje: Miguel, Fernando, Emilio, Jaz y Ángel. Son inmigrantes ilegales y les esperan más de dos mil kilómetros a través de México en trenes de mercancías. ¿Llegarán al norte, a su destino?



*Ikusezina*  
Laida Martínez Navarro  
Giltza

«Bere buruaren beldur dela azaldu dio Kermani, doilorra izatearen beldur. Ez dela beldur gay izateagatik. Beste gauza bat da: arazoei aurre egiteko kapaz ez dela jakitea. Arazoak gero eta handiagoak egingo zaizkiola jakitea. Arazo horiek jan egingo dute; arnasa hartzea, bizi izatea galaraziko diote. Eta hori guztia jakitea izugarria da».




## 12 + URTE

*Isiltasun-harrapariak*Daniel Bautista  
Ibaizabal

Armiarmak arazotan sartzeko ohitura txarra du. Ausartegia da eta, borroka baten ondoren, institututik kanporatu dute. Horregatik parkour izeneko kirol diziplinatsuan -beti orekan egotea ezinbestekoa den kirolean- babesa aurkituko du. Burugabekeria bat egingo du, eta horrek andre detektibe batekin lan egitera eramango du.

*Ezpainetakoa*Ane Labaka Mayoz—Malen Amenabar  
Larrañaga. Erein


“Arkatz gorriarekin ezpain haragitsuak perfilatzen nembilen ni, akrobazietan galduta bera, bere larruzalak komun likits harekin izan zezakeen kontakturik minimoena ere ekidin nahian”.




*El caballo de lord Byron*  
Vanessa Pérez-Sauquillo—  
María Espejo  
Siruela



Marco está fascinado con el poeta que va a vivir en el palacio donde trabajan sus padres. Se llama Lord Byron ¡y trae una barca llena de animales! Monos, zorros, pájaros... ¡Qué alegría cuando Lord Byron le dice que su hija Allegra pasará allí unos meses, así no se aburrirá entre tantos adultos!




## 12 + URTE




*El árbol que crecía en mi pared*  
Lourdes Navarro  
SallyBooks

Cuando un problema crece sin control, puede invadir toda nuestra vida... Mucho sabe de esto Mike, un chico que en casa no para de escuchar a sus padres discutir y en el instituto parece invisible, salvo para los matones de clase. Y todo se complica cuando, en el peor momento, nace un árbol en mitad de la pared de su cuarto.



*Elefantearen tristura*  
Antona Nicolas—Nina Jacqmin  
Harriet

Louis haur umezurtzaren bizitza ez da samurra: inork ez du adoptatu nahi, kideek iseka egiten diote bere loditasun eta betaurrekoengatik... Baina herrira zirkua iristean, Clara elefante-hezle gaztearekin adiskidetu eta maiteminduko da.



*Santa Familia*  
Eider Rodríguez—Julen Ribas  
Euskal Herriko Ikastolak

Familia da emanda datorren gauza bakarra. Ez lagunak, ez bizimodua, ez ingurua, familia baizik. Norak, ordea, arau horri ihes egingo dio. Sekretu bat gordetzen du. Bere sekretua. Baina hura kontatzeko ordua iritsi da, eta sakratua den instituzioa eztanda egiteko zorian dago. Jakina da, ordea, iraultza txikiak behar izaten direla gauzak bere onera ekartzeko.

## 12 + URTE

*Sasiolako errotaria*

Ramon Olasagasti Aiestaran—Xabier Sagasta Erein

Ander begitan hartua dute ikaskide batzuek. Mila deabrueria egiten dizkiote eta ez dute bakean uzten. Anderrek, ordea, ez ditu salatu nahi. Sasiolako errota abandonatura eramango dutela egiten diote mehatxu, hango mamuarekin gaua igarotzera. Herrian beti izan dira zurrumuruak eta kontu ilunak Sasiolako errotari buruz.

*Coraline*Neil Gaiman—Dave McKean  
Elkar

Coralinek etxe berria estreinatzen duenean, bertako txoko guztiak ikertuko ditu eta ate guztiak ireki: 13 zabalzen dira, baina 14.ak adreiluzko pareta bat dauka atzean. Halako batean, ordea, ate hori ere gurutzatzea lortuko du, eta berearen berdina den etxe bat topatuko du korridorearen beste aldean.

*Ikasbidaia*Jasone Osoro—Josevisky  
Elkar

Institutuan ikasbidaia prestatzen ari diren garaian, Beire, Kar eta Lete nahiz Baba, Linda eta Beyonceren bizitzek hankaz gora jarrita dirudite. Euren arteko harremanak aldatzen ari dira eta guztiak daude beren egoera berrietan endredatuta



---

## OPORRETAN ERE IRAKURRI!!

<http://www.eibar.eus/eu/kultura/jsm-liburutegia>

<http://liburutegiak.blog.euskadi.eus/eibar/>



<https://twitter.com/EibarLiburutegi>



<https://www.facebook.com/EibarkoLiburutegia/>



<https://www.instagram.com/eibarkoliburutegia/>



<https://www.youtube.com/user/eibarkoliburutegia>



<https://www.flickr.com/photos/26789439@N05/>



Juan San Martin Liburutegia

Bista Eder, 10 (Eibar)

Tel. 943 70 84 37

liburutegia@eibar.eus